

PASAIKO UDALA

Udal Zerga-bilketa
Ediktua

Alkatetzaren ebazpenaren bidez onartu dira **2022ko URRIKO** errolda hauek: **AZOKAK, ERRENTAK, HIGIEZINEN KANONA, NABARRA BOUAKO KANONA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA, TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK ETA EGUNEKO ARRETA (ELIZGAIN)**. Eta horiek jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat. Era berean, borondatezko bilketarako epea eta era adierazten dira, Gipuzkoako Lurraldeko Zerga Bilketako Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Arauaren 18. artikuluan jasotzen den moduan. Hori guztia honako arau hauen arabera:

a) *Non dauden ikusgai:* Errenta eta Ordainarazpenen Zerbitzua.

b) *Aztertze epea:* hilabete, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

c) *Desadostasuna adierazteko epea:* hilabete, b) puntuan adierazi bezala zenbatuta, arauzko berraztertze-errekurtsoaren bitartez.

d) *Zein organoren aurrean errekurritzen den:* alkatea.

e) *Erreklamazioak aurkezteko tokia:* udaletxeko Sarrera Erregistroa, bulego orduetan.

f) *Errekurtsoa aurkeztearen ondorioak:* aipatutako Foru Arauaren 14.2 artikuluan xedatutakoak.

g) *Zerga-bilketarako epea:* **2022ko azaroaren 1etik 24ra arte**, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak **2022ko azaroaren 24an** zordunduko dira baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean.

Lurralde Historikoko Zerga Bilketa Erregelamenduaren arabera, adierazitako epe hori bukatu ondoren, premiamendu bidezko nahitaezko jardunbideari ekingo zaio besterik gabe, eta ordaindu ez diren kuotak nahitaezko epeari dagozkion errekarguekin kobratuko dira, eta berandutze-interesak eta sortzen diren ekintzen kostuak ere kobratuko dira.

h) *Sarrera egiteko modua:* zergadunek beren ordainketak entitate laguntzaileetan eta HAZ bulegoetan egin ditzakete, goian aipatutako epea amaitu bitartean.

Horren berri ematen da, denek jakin dezaten.

AYUNTAMIENTO DE PASAIA

Recaudación Municipal
Edicto

Aprobados por resolución de Alcaldía **PADRONES MENSUALES DE OCTUBRE 2022: MERCADOS, RENTAS INMUEBLES, CANON INMUEBLES, CANON GARAJES NABARRA BOUA, ASISTENCIA DOMICILIARIA, APARTAMENTOS TUTELADOS, SERVICIO DIURNO (ELIZGAIN)**, se someten a información pública, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa. Asimismo, se señala el plazo y forma de recaudación voluntaria que requiere el art. 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Todo ello conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde están de manifiesto:* en el Servicio de Rentas y Exacciones.

b) *Plazo para examinarlo:* un mes contado a partir del siguiente día hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

c) *Plazo para manifestar disconformidad:* un mes computado en la forma que se indica en el extremo b), mediante la interposición del preceptivo recurso de reposición.

d) *Órgano ante el que se recurre:* la alcaldesa.

e) *Lugar de presentación de reclamaciones:* Registro de Entrada del Ayuntamiento, en horas de oficina.

f) *Efectos de la interposición del recurso:* los dispuestos en el art. 14.2 de la Norma Foral citada.

g) *Plazo de recaudación:* **del 1 al 24 de noviembre** ambos inclusive.

Los recibos domiciliados se cargarán el día **24 de noviembre 2022** en la cuenta corriente y entidad financiera autorizadas por el contribuyente

Transcurrido el indicado plazo de pago voluntario, se iniciará el procedimiento administrativo de apremio, conforme a lo establecido en el vigente Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, procediéndose al cobro de las cuotas que no hayan sido satisfechas con los correspondientes recargos del periodo ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

h) *Modo de ingreso:* las personas contribuyentes podrán realizar el pago en las Entidades Colaboradoras con este Ayuntamiento y en las oficinas del SAC, hasta la fecha arriba indicada

Lo que se hace público para general conocimiento.

Pasaia, 2022/10/31

Alkatea, IZASKUN GOMEZ CERMEÑO